

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

GAINTZAKO UDALA

Iragarkia

Jendaurrean jartzeko arauzko epea amaitu eta haren aurka inolako erreklamazio edo oharpenik aurkeztu ez denez, behinbetikotzat onartuta geratu da Udalbatzarrak 2018ko ekainaren 28ko bileran hartutako erabakia, Gaintzako liburutegiaren funtzionamendurako araudiarenarena.

Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak 70.2 artikuluan xedatutakoa betez, onartutako testua argitaratzen da.

Erabakiak amaiera ematen dio administrazio bideari. Horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da: Euskal Herriko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, iragarkia argitaratzen den egunetik kontatzen hasita; egoki irizitako beste edozein errekurtso jartzeari utzi gabe.

Gaintza, 2018ko irailaren 17a.—Gaizka Balerdi Olaetxea, alkatea. (6338)

Gaintzako liburutegiaren erabilera araudia

Gaintzako liburutegia, udaletxeko hirugarren solairuan dago. Saloi baten daude hainbat gune, bata ordenagailuak (kZgunea) daudena, bestea, liburutegia bere horretan, eta beste zonaldea ikasgela bezala erabili daitekeena.

ZONALDE HAUEN ERABILERA

- KZgunea.
- * Zer da?

KZgunea zentruen sarea, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza saileko Informatika eta Telekomunikazioen Zuzendaritzara atxikita dago. 2001. urtean jaiotzen zen 2002-2005 Euskadi Informazioaren Gizartean Planaren barruan (EIGP) eta bertan euskal gizartea Informazioaren Gizartean integratzera zuzenduriko ekimen ugari jasotzen dira. Zuzendaritza honek, proiektuaren kudeaketa zerbitzuen gomendio bat finkatzen du Eje S.A. empresa publikoarekin (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco).

KZgunearen barnean garatzen diren aktibitate nagusiak Teknologia Berrien inguruko formazioa, IT Txartelaren frogan antolakuntzara eta enplegura sarbidea errazteko aktibitateetara zuzentzen dira batik bat. Pertsonen lan-mundura sartzeko erraztuko duten aktibitateak egiteko eskaria geroz eta handiago izanik, eta KZguneak aholkulari pertsonal bat doainik jartzen duela kontutan hartuta, azken urteetako parte-hartze datuak bikainak izan dira. Gainera, KZguneak programa sektorialak sustatzeko esfortzua handitu egin du.

— Udaletxeentzat, KZgunea herritarrei zuzendutako aktibitate formatiboak egiteko eta ziurtagiriak banatzeko lagungarri izan daitekeen aliatu estrategikoa da.

AYUNTAMIENTO DE GAINZA

Anuncio

Transcurrido el periodo de exposición pública y viendo que no se ha interpuesto alegación alguna contra la misma queda aprobada definitivamente la Ordenanza de funcionamiento de la biblioteca de Gaintza, aprobada inicialmente por el Pleno Municipal en sesión celebrada con fecha 28 de junio de 2018.

Lo cual se hace público en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, siendo el texto definitivo de la ordenanza el que se inserta a continuación.

Contra la presente resolución que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas pueden presentar Recurso Contencioso-Administrativo, ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente a la fecha de publicación de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Gaintza, a 17 de septiembre de 2018.—El alcalde, Gaizka Balerdi Olaetxea. (6338)

Normativa de uso de la biblioteca de Gaintza

La biblioteca de Gaintza se ubica en el tercer piso del Ayuntamiento. Se compone de un gran salón, dividido en varios espacios, uno destinado a ordenadores (KZgunea), otro la biblioteca, propiamente dicha y otra zona que se puede utilizar como zona de estudio.

USO DE DICHOS ESPACIOS

- KZgunea.
- * Que es?

La Red pública vasca de centros KZgunea, dependiente de la Dirección de Informática y Telecomunicaciones del Departamento de Gobernanza Pública y Autogobierno del Gobierno Vasco, nació en 2001 a raíz del Plan Euskadi en la Sociedad de la Información (PESI). Los servicios de gestión del proyecto se encomiendan, por parte de esa Dirección, a la empresa pública Eje, S.A. (Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarte - Sociedad Informática del Gobierno Vasco).

La principal actividad desarrollada en los centros KZgunea está destinada a la formación en Nuevas Tecnologías, además de colaboraciones con otras entidades. La creciente demanda de servicios que aumentan la empleabilidad de las personas, sumado a que la persona usuaria tiene a su disposición a nuestro personal educador que le asesorará personalmente sobre cualquier duda tecnológica relacionada con nuestro catálogo de servicios de manera gratuita, se ha traducido en unos magníficos datos de participación en los centros KZgunea; reflejados en la memoria que se publica anualmente. Además, KZgunea redobla sus esfuerzos para aumentar la cantidad de programas sectoriales y la formación a demanda y actuando como canalizador para mejorar la calidad de todas las actividades realizadas.

— Para los ayuntamientos, KZgunea es un aliado estratégico que les permite organizar y promover actividades formativas y certificaciones que mejoran el servicio orientado a su ciudadanía.

– Erabiltzailearentzat, KZgunea elkarlanerako espazio irekia da. Bertan, enplegu batetara sarbidea erraztuko dion doako formakuntza edota administrazio elektronikoa erabiltzen has-teko aktibitateak egiteaz gain, pertsonalki aberasgarriak izango diren esperientziak biziko ditu.

* Orduetgia:

Asteleheneetik ostiralea.

Goizeko 9:00tatik arratsaldeko 7arte.

Hilean behin: Ostiralean dinamitzailea etortzen da.

• Liburutegia:

Gaintzako liburutegia Eusko Jaurlaritzako liburutegi sarean dago.

* Zerbitzuak:

– Heldu eta haurrentzako irakurketa gela bat.

– Liburutegien arteko liburu mailegua eta DVD, CD-en mailegua.

– Ordenagailu bidezko kontsulta.

– Aldizkari eta egunkariak.

– Fotokopiagailua.

– Irakurketa sustazeko jarduerak.

– Wifi gunea.

– Haurrentzako ipuin kontaketak.

* Bazkide izateko bete- beharrak:

Eskaera egitea.

a) Eskubideak.

– Bazkide txartelarekin 3 liburu eta 3 material berezi (ikus-entzunezkoak, Cd-Rom etab) hartu ahal dituzu zure udal liburutegian; 5 liburu eta 5 material berezi (ikus-entzunezkoak, Cd-Rom etab) sareko gainerako udal liburutegietan.

– Mailegutako dokumentuak hartu dituzun liburutegian itzuli behar dituzu.

– Dokumenturen bat galtzen baduzu, horren berdina erosi beharko duzu hilabeteko epearen barruan liburutegira bueltatzeko. Horrela egin ezean, ezin izango duzu bazkide txartela erabili.

b) Bazkide bete beharrak.

– 6 urtetik beherako haurrek heldu batez lagundurik egon behar dute.

– Gainontzekoek modu autonomoan erabili ahal izango dute.

– Altzariak, ekipoak eta funtsa (liburuak, DVDak eta abar) ezin dira tokiz aldatu, hondatu edo behar ez bezala erabili. Norbaitek zerbait hondatzen badu, konponketa ordainduko du.

– Ez dago telefono mugikorra erabiltzerik soinurik gabe egon ezean. Halaber, ezin da irudirik grabatu edo argazkirik atera.

– Animaliarik ezin da sartu, txakur itsu-gidariak izan ezik.

– Ezin dira irakurgelak erabili eskulanak egiteko (guraize, kola eta abar), liburutegiko arduradunak ez dagoen kasoan.

– Ordenagailuak eta dokumentuak ez dira erabiliko liburutegiko arduraduna bertan ez badago.

* Maileguak:

Epeak.

– Liburuak itzultzeko epea 21 egunekoa da.

– Material bereziak (ikus-entzunezkoak, Cd-Rom etab) itzultzeko epea 7 egunekoa da.

– Itzultzeko epea amaitu ondorengo atzerapenak postaz jakinaraziko ditugu eta zigortu egingo dira. Oso berandutzen denari edota beti berandu dabilenari bazkide txartela kendu egingo zaio.

– Para la persona usuaria, KZgunea es un espacio colaborativo y abierto, donde puede obtener una formación gratuita que mejora su empleabilidad y, en consecuencia, aumentar su enriquecimiento personal.

* Horario:

De lunes a viernes.

De 9:00 horas a 19:00 horas.

Una vez al mes: Se persona un dinamizador.

• Biblioteca.

La biblioteca está integrada en la red de bibliotecas de Eusko Jaurlaritza.

* Servicios:

– Zona de lectura para niños y adultos.

– Préstamo entre bibliotecas de libros y DVD y CDs.

– Consulta mediante ordenador.

– Revistas y periódicos.

– Fotocopiadora.

– Actividades para fomentar la lectura.

– Zona Wifi.

– Cuenta cuentos para niños.

* Condiciones para ser socio:

Solicitarlo.

a) Derechos.

– Con el carnet de socio se podrán coger tres libros y 3 materiales especiales (videos, Cd-rom y demás) y 5 libros y 5 materiales especiales (videos, Cd-rom y demás) de bibliotecas de al red.

– Los documentos prestados se deberán entregar en la biblioteca en el que las han recogido.

– En caso de pérdida de algún documentos deberá comprar uno nuevo en el plazo de un mes para su entrega en la biblioteca, en caso contrario no podrá utilizar el carnet de socio.

b) Deberes de los socios.

– Los menores de 6 años deberán estar acompañados por adultos.

– Los mayores podrán actuar de manera autónoma.

– El mobiliario, los equipos y material (libros, DVD y demás) se deberán mantener en su sitio, se deberán utilizar con diligencia. En caso de que no sea así deberán reponerlo.

– Se prohíbe el uso de teléfonos móviles, ano ser que estén en silencio. Así, mismo no se pueden grabar videos, ni sacar fotos.

– No se puede entrar con animales, a no ser que sean perros guía.

– La sala de lectura no se puede utilizar para hacer manualidades, sin que esté el responsable de la biblioteca.

– Los documentos y ordenadores no se podrán usar sino en presencia del responsable de la biblioteca.

* Préstamos:

Plazos.

– Se devolverán los libros en el plazo de 21 días.

– Material especial (videos, Cd-rom y demás) se deberán devolver en el plazo de 7 días.

– Una vez finalizado el plazo de prestamos sin que se haya procedido a la entrega se notificará por escrito y se procederá a sancionar. Cuando el retraso es grande o/y se retrasa de manera reiterada se procederá a la retirada del carnet de socio.

* Luzapenak:

– Liburuen epea beste 21 egunez luzatu ahal izango duzu eta material bereziena (ikus-entzunezkoak, Cd-Rom etab) beste 7 egunez, inoren erreserbarik ez badute.

– Luzapenak liburutegian bertan, telefonoz, Internet bidez eta baita liburutegiak horretarako prest dituen ordenagailuetan ere eskatu ahal izango dituzu.

– Zerbitzuaren beste erabiltzaile batek dokumentu baten erreserba eginga badu, ezingo duzu dokumentu horren epea luzatu.

* Buzoia, maileguak itzultzeko aukera:

Liburutegia itxita dagoenean, liburutegiaren kanpoaldean dagoen buzoian utzi ditzakezu bueltatu nahi dituzun materialak.

* Erreserbak:

Gehienez bi dokumentuen erreserba egin dezakezu, katalogoa kontsultatzeko orrialdean.

Erreserbatutako dokumentuak liburutegira iristen direnean telefonoz jakinaraziko dizugu.

Erreserbatutako materiala jasotzeko bi eguneko epea izango duzu. Horrela egin ezean erreserba bertan behera utziko da.

• Ikasgela.

Ikasgela, 16 urte beteta edota indarrean dagoen urte naturalean beteko dituzten erabiltzaileei dago zuzenduta.

Gaintzan erroldatuta egon beharko da.

Ez da posible izango ikasgelara txartel batekin pertsona bat baino gehiago sartzea.

Ikasgela erabiliko da ikasteko edo/eta talde lanak egiteko.

Une batean ikasgela ikasteko eta talde lanak egiteko erabili nahi bada, lehentasuna izango du ikastea datorrenak.

Talde lana egitera datorren norbaitek (taldekoak) txartelik ez badu aurreko egunean jakinarazi beharko du, pertsona identifikatzeko.

* Orduetgia:

Astelehenetik ostiralera: liburutegiaren orduetgiaren barruan ez da txartelik beharko. Orduetgitan kanpo txartela erabili beharko da.

Larunbata, Igandea eta jai-egunak: 09:00-22:00etara irekiko da. Txartelarekin sartu behar da.

* Txartela egiteko beharrezko dokumentazioa:

– Inprimakia.

– NAN fotokopia.

– Argazki bat.

– 5 euroko fidantza (txartela eta fidantza-agiria itzultzen duenean bueltatu egingo dira).

* Sarrera txartelari buruz:

– Ikasgelako txartela eskuratzeko 5 euroko fidantza ordaindu behar du erabiltzaileak.

– Txartela pertsonala eta besterenezina da.

– Txartela galduz gero, lehenbailehen jakinarazi behar da liburutegian, sarrera baimena baliogabetzeko. Eta, txartela berria egiterakoan berriro ordaindu beharko du tasa hori.

– Gogoratu 30 egunez behin, txartela eguneratzailetik pasatu beharko duzula datuak eguneratzeko.

* Gelaren erabilpenari buruz:

– Ikasgelako erabiltzaileen betebeharrak orokorrak errespetatu.

* Prórrogas:

– Se podrá solicitar la ampliación de plazo por otras 21 días en caso de la entrega de libros y de otros 7 días en el caso de material especial (videos, Cd-rom y demás) y se concederá para el caso de que no haya reserva de los mismos.

– Las prórrogas se podrán solicitar en la biblioteca, por internet y también en los ordenadores que tiene la biblioteca para ello.

– En el caso de que otro socio haya reservado el material ya prestado, no se podrá ampliar el plazo de préstamo.

* Buzón, posibilidad de entrega de material prestado:

Cuando la biblioteca permanece cerrada se podrá entregar el material prestado en el buzón colocado al efecto.

* Reservas:

Se podrán realizar reservas como máximo para dos documentos y la hoja de consulta de catálogo.

En cuanto lleguen los documentos reservados se te notificará por teléfono.

Una vez que se haya hecho saber que el material ha llegado tendrá el plazo de dos días para su recogida, en caso contrario se anulará las reserva.

• Sala de estudio.

Esta sala está destinado a los mayores de 16 años o a los que en ese año natural cumplan 16 años.

Deberá estar empadronado en Gaintza.

Con la tarjeta que se entrega al efectos podrá entrar el titular.

La sala se utilizará para estudiar o para realizar trabajos en grupo.

Si en el mismo momento se quiere utilizar la sala para estudiar y hacer trabajos en grupo tendrán prioridad los que la quieren destinar a estudio.

Si alguno de los integrantes del grupo de trabajo no posee tarjeta deberá comunicarlo el día anterior para su identificación.

* Horario:

– De lunes a viernes: en horario de apertura de la biblioteca no será preciso el uso de la tarjeta. Fuera del horario de la biblioteca sí.

– Sábado, domingo y fiestas: 9:00-22:00. Se deberá entrar con tarjeta.

* Documentación necesaria para obtener la tarjeta:

– Impreso.

– Fotocopia de DNI.

– Una foto.

– 5 euros de fianza (se devolverá con la entrega de la tarjeta y recibo de la misma).

* Sobre la tarjeta:

– Para su obtención se deberá depositar 5 euros de fianza.

– La tarjeta es personal e intransferible.

– En caso de pérdida de tarjeta se deberá comunicar en la biblioteca cuanto antes para anular el permiso de entrada. Se podrá solicitar de nuevo una tarjeta abonando de nuevo la fianza.

– Cada 30 días se deberá actualizar la tarjeta para la actualización de datos.

* Sobre el uso de la sala:

– Se deberán respetar a los usuarios de la sala.

– Ikasgelatik ateratzen den azken pertsonak argiak itzali eta lehioak itxi mesedez.

– Ikasgelako mahai eta aulkiak gehienez ere 30 minutuz gorde ahal izango dira erabiltzailea bertan ez dagoela. Eta inola ere ezingo da tokirik gorde eguerditik (bazkaltzeko ordua...) arratsaldera edo egun batetik bestera.

– Txartel batekin pertsona bakarra eta txartelaren jabea sartu daiteke, beste norbait sartzen bada txartel horrekin edo bakarrik ez bada sartzen, txartelaren jabea izango da ardura-duna gertatu litekenetaz.

Arau hauek betetzen ez badira, Udalak, ahalmena izango du, sarrera baimena baliogabetzeko eta behar diren neurriak hartzeko.

– Al salir de la sala se deberán apagar la luces y cerrar las ventanas.

– No se podrán abandonar la mesa y silla por un periodo superior a 30 minutos, pues no se puede guardar el sitio por mas tiempo. De la misma manera no se podrá guardar sitio al mediodía (horario de comida) ni un día por otro.

– El titular de la tarjeta es el único que puede entrar con esa tarjeta si entra acompañado por otra persona sin tarjeta o con la suya entra otra persona, el titular se responsabilizará de lo que pueda surgir.

Si no se respetan estas normas el Ayuntamiento tendrá el derecho de prohibir la entrada y tomar las medidas oportunas.